



Elorrioko udala

Kirola
Deporte

ELORRIOKO UDAL KIROLDEGIAN ETA IGERILEKU LUDIKOETAN KOBRATUKO DIREN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTUKO DITUEN ORDENANTZA

1. artikulua.— Oinarria eta izaera

Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 44. artikulua aurreikusten duenarekin bat, udal honek udal kiroldegian kobratuko dituen prezio publikoak ezarri ondoren ordenantza honen bidez arautuko ditu.

2. artikulua.— Zerga-egitatea

1. Prezio publiko hauen zerga-egitatea sortzen da udalaren kirol instalazioetan toki eskumenekoak diren zerbitzuak ematearren.

2. Ordenantza honen bidez arautzen diren prezio publikoak independenteak izango dira eta toki eskumeneko jarduerak egitearren ezar daitezkeen beste tasa eta prezio publikoekin bateragarriak.

3. artikulua.— Zergapekoak

Prezio publiko hauen zergapekoak pertsona fisiko edo juridikoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 34. artikulua aipatzen dituen erakundeak dira aurreko artikulua aipatzen dituen zerbitzuak edo jarduerak eskatzen edo onurak jasotzen dituztenean

4. artikulua.— Zerga-kuota

1. Ordenantza honetan araututako prezio publikoen zenbatekoa eranskinean batu diren tarifak eta zenbateko finkoak batu ondoren ateratzen den emaitzari dagokiona izango da.

5. artikulua.— Kudeaketa eta Diru bilketa

1. Prezio publikoa eta ordaintzeko obligazioa sortuko dira zerbitzua ematean edo jarduera egitean, eta zenbateko osoaren edo zati baten aurretiazko depositua ezartzea eska daiteke.

2. Urterako zerbitzuak behin eskatutakoan baja eskatzen ez den bitartean harpidetza luzatzea gura dela ulertuko da.

Baja-eskabideak indarra hartuko du tarifaren epigrafean adierazitako denboraren epe naturalaren lehenengo egunean hasita, berdin izanik baja eskatzeko arrazoia. Baja eskatu ezean prezio publikoa ordaintzen jarraitzeko obligazioak indarrean jarraituko du.

3. Zerbitzuak edo jarduerak egin edo garatzen ez direnean, eta horretan subjektu pasiboak zerikusirik ez duenean, erabiltzaileari dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

6. artikulua.— Hobariak

Eranskinean ezarritako prezioetan honako hobari hauek – ez metagarriak- ezarriko dira:

1. Elbarriak:

— %50eko hobaria, %51 eta %100aren arteko minusbalotasuna duten pertsonentzat bakarkako abonamendu arruntean eta zerbitzuetan, gehienez 1.000,00 € urtean.

2. Langabeak edo ikasleak (ikasleak 25 urte arte) ***:

— Abonamendu indibidualak direla eta : %25

3. 18 urtetik beherakoak:

— Abonamendu indibidualak direla eta: %25.

7. artikulua.— Indarra hartuko duen eguna

Ordenantza honek indarra hartuko du Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean eta indarrean egongo da aldatzen edo indargabetzen ez den bitartean.

ERANSKINA

1. Urteko abonamendu-kuotak:



Elorrioko udala

Kirola
Deporte

Kiroldegian (Elizaldeko igerilekuetan ez du eraginik izango): Abonamendu integraletan aukera egongo da ordainketa hiru zatitan egiteko, hau da:

Lehenengo ordainketa, urteko prezioaren %50a, lehen hiruhilekoaren hasieran.

Bigarren ordainketa, urteko prezioaren %25a, bigarren hiruhilekoaren hasieran.

Hirugarren ordainketa, urteko prezioaren %25a, hirugarren hiruhilekoaren hasieran.

Urtean zehar egiten diren abonamendu-altetan urteko prezioari zati proportzionala kenduko zaio kontuan hartuta igarotako hiruhileko osoak.

Urtarrila eta otsailean abonamenduaren kategoria aldatzeko aukera onartuko da; gainerako hilabeteetan aldaketa egin ahal izango da, maila handiagoko kategoria batera, ez txikiagora.

Urteko abonamenduan baja eskatzea gura izanez gero, udaletxeko HAZean eskabide-orria aurkeztu beharko da eta bertan arrazoiak justifikatu beharko dira. Eskaera kirola arloan aztertuko da, eta kirola batzordeko buruak adostasuna emongo dio eta udal diruzaintzara bialduko da.

a) Igerileku klimatizatuko abonamendua

— Banakako abonamendua: 108,10 euro.

— Banakako abonamendua: erretiroduna edo pentsionista: 96,75 euro

— Familiako abonamendua *:199,80 euro.

— Familia ugarientzako abonamendua **: 159,85 euro.

— Familiaburua erretiroduna edo pentsionista den kasuetarako abonamendua *: 178,90 euro.

— Guraso bakarreko familiarentzako abonamendua *: 178,30 euro.

b) Abonamendu integrala (igerileku klimatizatu eta gimnasioa):

— Matrikula 40,00 euro.

— Banakako abonamendua: 175,70 euro.

— Banakako abonamendua: erretiroduna edo pentsionista: 157,30 euro.

— Familiako abonamendua *:324,85 euro.

— Familia ugarientzako abonamendua **: 259,90 euro.

— Familiaburua erretiroduna edo pentsionista den kasuetarako abonamendua *: 290,80 euro.

— Guraso bakarreko familiarentzako abonamendua*: 289,90 euro.

2. Sarrera-prezioa harpidedunak ez direnentzako:

— 3-16 urte bitarteko umeentzako: 5,00 euro.

— Bona, 10 sarrera, hiruhilero iraungipena : 45,00 euro.

— 16 urtetik gorako pertsonentzako: 6,50 euro.

— Bona, 10 sarrera, hiruhilero iraungipena : 58,50 euro.

— Sarrera kantzara edo pilotalekura: 1,40€.

3. Alokairuak:

a) Abonamendu integrala dutenak

— Frontoia (ordu bat): 8,00 euro.

— Squash (ordu bat): 4,00 euro.

— Pista (ordu bat): 15,00 euro.

— Igerilekuko kalea (ordubete): 30,00€

— Tatami gela (ordubete): 30,00€

— Erraketa, baloia edo pala: 1,00 euro.

— Squasheko edo palako pilota: 0,50 euro.

b) Igerilekurako abonamendua edo harpidedunak ez direnak:



Elorrioko udala

Kirola
Deporte

- Frontoia (ordu bat): 20,00 euro.
- Squash (ordu bat): 8,00 euro.
- Pista (ordu bat): 30,00 euro.
- Igerilekuko kalea (ordubete): 30,00 €
- Gela (ordubete): 30,00 €
- Erraketa, baloia edo pala: 1,00 euro.
- Squasheko edo palako pilota: 0,50 euro.

4. Zerbitzuak:

Igerilekuko ikastaroak 45 minutukoak izango dira, lurreko ikastaroak ordubeteakoak.

Hiruhilekoan zehar ikastaroetako alta barrietan ordaindu beharreko prezioa hiruhilekoari dagokiona izango da eta ondoren, igarotako hilabete osoen zati proportzionalaren itzulketa eskatuko du interesdunak.

a) Abonamendu integrala dutenak:

- Igerilekuko hiruhileko ikastaroak (2 saio/astean): 40,00 euro.
- Igerilekuko hiruhileko ikastaroak (saio bat/astean): 20,00 euro.
- Lurreko hiruhileko ikastaroak (2 saio/astean): 75,00 euro.
- Lurreko hiruhileko ikastaroak (saio bat/astean): 40,00 euro.
- Hiruhileko Inskripzioa mantenu-gimnastikara (2 saio asteen): 30,00 €.
- Hiruhileko inskripzioa adinekoentzako gimnastikara (erretiratuak edo pentsiodunak) (bi saio asteen): 15,00 €.
- Igerilekuetako ikastaroak egin ezin eta egiaztatzen dutenei zuzendutako igerilekuko ikastaroa (saio bat): 18,00 €.

b) Igerileku klimatizatutako abonamendua dutenak:

- Igerilekuko hiruhileko ikastaroak (2 saio /astean): 40,00 euro.
- Igerilekuko hiruhileko ikastaroak (saio bat/astean): 20,00 euro.
- Lurreko hiruhileko ikastaroak (2 saio/astean): 130,00 euro.
- Lurreko hiruhileko ikastaroak (saio bat/astean): 70,00 euro.
- Hiruhileko inskripzio mantenu-gimnastikara (2 saio asteen): 60,00 euro
- Hiruhileko inskripzioa adinekoentzako gimnastikara (erretiratuak edo pentsiodunak) (bi saio asteen):30,00€
- Igerilekuetako ikastaroak egin ezin eta egiaztatzen dutenei zuzendutako igerileku ikastaroa (saio bat): 18,00€

c) Harpidedunak ez direnak:

- Igerilekuko hiruhileko ikastaroak (2 saio/astean): 80,00 euro.
- Igerilekuko hiruhileko ikastaroak (saio bat/astean): 40,00 euro.
- Lurreko hiruhileko ikastaroak (2 saio/astean): 130,00 euro.
- Lurreko hiruhileko ikastaroak (saio bat/astean):70,00 euro.
- Hiruhileko inskripzioa mantenu-gimnastikara (2 saio asteen): 60,00 €.
- Hiruhileko inskripzioa adinekoentzako gimnastikara (bi saio asteen): 30,00 €.
- Igerilekuetako ikastaroak egin ezin eta egiaztatzen dutenei zuzendutako igerilekuko ikastaroa (saio bat): 18,00 €.

5. Elorrioko igerileku ludikoetan:



Elorrioko udala

Kirola
Deporte

— Abonatu Orokorra:

Familiarra*: 100,00 euro.

Familia ugaria**: 90,00 euro.

Titular jubilatuaren familia*: 80,00 euro.

Guraso bakarreko familia*: 90,00 euro.

Banakakoa: 60,00 euro.

Banakakoa 65 urtetik gora edo 18 urte beherakoak: 50,00 euro.

— Udal kiroldegiko abonua izanez gero:

Familiarra*: 80,00 euro.

Familia ugaria**: 70,00 euro.

Titular jubilatuaren familia*: 70,00 euro. Guraso bakarreko familia*: 70,00 euro.

Banakakoa: 45,00 euro.

Banakakoa 65 urtetik gora edo 18 urte beherakoak: 40,00 euro.

—Eguneko sarrerak:

18 urtetik gora: 6,00 euro. (Txandaka sartzeko mugak ez dauden artean).

3 urtetik 18ra eta 65 urtetik gora: 4,00 euro. (Txandaka sartzeko mugak ez dauden artean).

3 urtetik beherakoentzat: 0,00 euro.

Erakunde batek antolatutako taldea (15-49 pertsona) ****, 3,00 €/kideko. (Txandaka sartzeko mugak ez dauden artean).

Erakunde batek antolatutako taldea (50 lagun gutxienez) ****, 2,00 €/kideko. Txandaka sartzeko mugak ez dauden artean).

18 urtetik gora: 4,00 euro. (Txandaka sartzeko mugak dauden artean).

3 urtetik 18ra eta 65 urtetik gora: 3,00 euro. (Txandaka sartzeko mugak dauden artean).

6. Besteak:

Igeriketako txanoa: 5,00 euro.

Igeriketako troxa: 1,50 euro.

Txartela galduta, berria egitea: 4 euro

* Seme-alabak, 21 urtera arte (aurtengo urtarrilaren 1ean 22 urte baino gutxiago izan); 18 urte baino gehiago izanez gero langabezian izatea ziurtatu behar da Gizarte Segurantzako aurreko urteko lan bizitzaren bidez, edo gehienezko lan orduak baino gehiago egin ez izana (250 ordu).

** 40/2003 legearen 2. atalari begira, familia ugarien babesari buruzkoa.

*** Aurtengo urtarrilaren 1ean 26 urte baino gutxiago izanez gero langabezian izatea ziurtatu behar da Gizarte Segurantzako aurreko urteko lan bizitzaren bidez, edo gehienezko lan orduak baino gehiago egin ez izana (250 ordu).

**** Elkarteak, ikastetxeak edo erakundeak eskabide-orria aurkeztu eta bertan zehaztu beharko ditu kide-eta monitore-kopurua. Udalak beste ezer onartzen ez duen bitartean, monitoreko ratioa 15 parte-hartzailekoa izango da.

**** Bi ezkontideak erretiratuta edota bananduta, edo bietako bat erretiratuta edo bananduta egonda beste kideak langabezian dagoela egiaztatuz gero edo aurreko urtean 250 ordu baino gehiagoko muga gainditu ez badu beharrez Gizarte Segurantzak egindako lan-bizitzaren txostenaren bidez.